

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Alfa fusiorako bidean dauden belar luzeengatik. Gainera arratoiak daudela dio.	Lursail hauek pribatuak dira. Dagokion espedientea ireki zen, eta, azkenean, 2024ko otsailean bertako sasiak kendu ziren, exekuzio subsidiarioaren bidez. Hala ere, berriz ere egoera txarrean dagoenez, berriz eskatu zaie bizilagunei lursailak garbitu ditzaten, sasirik gabe eta txukun egon daitezen.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio eskailera mekanikoak ez daudela egoera onean.	Aldian behin bilerak egiten dira mantentze-lanetako enpresarekin, eta eskailera mekanikoen arazoaren berri eman zaie. Nolanahi ere, adierazten digute geldirik dauden gehienetan norbaitek gelditu duelako dela.
Udaltzaingoa	Auzotar batek dio Udaltzaingotik esaten dutela STOP seinaleak jarrita daudela, baina ez dela horrela.	Udaltzaingoa ingurutik igaro da eta STOP seinalea dagoela egiaztatu du. Adierazitako seinalea ez bada, mesedez, bileran dauden agenteekin hitz egiteko eskatzen dizuegu.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio horma bateko (Ziriako Agirre, 10) zuhaitz batek zomorro asko dituela. Era berean, eskatzen du horma hori pintatzeko eta eremu horretan zebra-bidea egiteko.	Azaroaren 22an, berriz ere lan-agindua eman zen Ziriako Agirre kalearen atzealdeko pikondoa mozteko. Aipatutako lana 2023ko azaroaren 29an amaitu zen. Zebra-bidea: dagoeneko eginda dago.
Zerbitzuak	Amaña 9ko bizilagun batek dioenez, kale hori oso zikina dago. Ez omen da sekula garbitzen.	Mankomunitatekoak ere egon ziren bileran, eta adierazi zuten astean bitan garbitzen dela gunea. Garbiketa hobekuntzarako planarekin maiztasuna handitzea aztertuko da, egun gehiagotan garbitu dadin. Kexaren ondoren, gunea

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Pertsona berak eskatzen du eskailera bat edo espaloia jartzeko. Horrez gain, esaten du konpontzeko dagoen horma bat dagoela, sasiz beteta. Errepidean ere zulo bat dago.	guztiz garbitu zen hidrogarbitzailearekin, eskailera barne. Badira 2-3 hilabete ingurua berriz garbitu dela. 2024ko urtarrilaren 31n, Amaña 9ko ezpondan sasiak kendu ziren, eta, horrela, arazoa konpondu egin zen. Zuloaren kontua dela-eta, Brigadako igeltseritza-taldeari arazoaren berri eman zitzaion, eta konpondu egin zuten (azaroaren 24an).
Zerbitzuak	Bustinduitarren 10eko bizilagun batek eskatzen du itzaltzen ez diren argiak jartzeko, oraingoak mugimenduarekin baino ez dabiltza-eta. Zoladura irristagaitza jartzeko ere eskatzen du.	Bileraren ondoren, argiak aldatu, eta horrekin arazoa konponduta geratu zen. Jakinarazten dute, era berean, 2024ko urriaren amaieran errebisatu egin zirela bertako argiak eta denek funtzionatzen zutela. Bustinduitarreneko kutxatila direla-eta, jakinarazten da tratamendu irristagaitza egin zitzaizela (2024/01/08).
Zerbitzuak	Amaña6, 4D helbideko bizilagun batek diotenaren arabera, Corte Ingles pareko errotonda oso ederra da; atzealdea ere txukundu egiten da. Hala ere, badaude moztan ez diren izei batzuk ere. Sarbidea ez da erraza, baina moztu daitezela eskatzen du.	Amaña 2-4 -6, eta abarreko horman sasiak moztu ziren. Lan hori horma bertikaletan sasiak kentzen aditua den espresa espezializatu batek egin du, urrian. Inguruko zuhaixkak kentzeko lana azpikontratatu egin zen. Dagoeneko kenduta daude.
Zerbitzuak	Wenceslao Orbeako bizilagun baten kexa: garaje ugari dago; porlana pitzatu egiten denez, garajeetan ura sartu eta uholdeak sortzen dira.	Haur-parke hau erretiratu egin zen, eta ez da berriz jarriko garajeetan ura sartzeko saihesteko. Hala ere, Mankomunitateak hidrogarbitzailea pasatu zuen parkean, abenduaren erdialdean, txukun uzteko.

Iruzkindua [NB1]:

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	2, 4 eta 6 atarietako bizilagun batek honela dio: armiarma-habiak daude, eta baita sasi luzeak ere.	Kexa jaso zenean, heskaiak eta sasiak moztu ziren, eta egiteke gelditu zen ezpondako txukunketa. Izan ere, bertikala denez, horretan espezializatua den enpresa batek egiten du. Sasiak moztu eta txukunketa-lanak egin dira horman, urriaren 14-18ra bitarteko astean. Horrekin, amaitutzat eman dira lanak. Gerora, zuhaixkak erretiratu eta gunea txukundu egingo da. Dagoeneko onartu da eskera.
Alkatetzak	Bizilagun batek diotenaren arabera, Amaña auzoko akustika deserosoa da saihezbidearengatik eta AP8 autobideagatik. Panelak eskatzen ditu.	Errepide biak ez dira udal-eskumenekoak, Aldundiarenak baizik. Behin baino gehiagotan eskatu zaio Aldundiari panelak jartzeko.
Obrak	Eskailera mekanikoak zaharkituta geratu dira eta haien ordeztu igogailuak jartzea aztertu beharko litzateke.	Bideragarritasun-azterketa bat egiteko eskatu zen, eskailera eta arrapala mekanikoen ordeztu igogailuak jartzeko. Azterketa hori jaso berri da eta begiratzen ari dira.
Hirigintza	Artegietan eta Asola Igartzan aparkaleku gehiago behar dira.	Amaña auzoa mendi-magalean eraikita dago, eta baldintza topografikoek zaildu egiten dute aparkatzeko guneak sortzea. Bideragarritasun hobekuntzak egitea aurreikusita dago, plazak optimizatzeko (Karlos Elgezua eta Arregieta lotu)
Zerbitzuak	Amaña ikastetxetik gertuko zebra-bideak pinta daitezela eskatzen du. Baita inguruan umeak dabiltzala adierazten duten seinaleak jar daitezela ere.	Inguruko zebra-bideak aztertu ondoren, egoera onean daudela egiaztatzen da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Norbaitek usoei jaten ematen die. Badakite zein den, baina ez da ezer egiten.	Horrelako kexak daudenean, pertsonarekin hitz egiten da, eta jakinarazten zaio jarrera horrekin jarraitzeak zer-nolako ondorioak zian ditzakeen. Hala ere, jarrera aldatzen ez badu, zigortzeko txostena egiten da.
Hirigintza	Tiburtzio Anitua 1eko bizilagun bat kexu da inguruan ez dagoelako aparkaleku askorik. Soluzio bat eskatzen du. Espaloiaren gainean edo oinezkoen babesgunean aparkatzen uzteko eskatzen du.	Aparkalekuaren arazoa garrantzitsua da, baina era berean, bermatu egin behar dira oinezkoen bideragarritasuna eta segurtasuna.
Zerbitzuak	Tiburtzio Anituako bizilagun bat kexu da barandako landare igokariak inausi gabe daudelako.	Urriaren 21ean, inausi egin zen barandako landare igokaria.
Obrak	Pasaguneari eusten dioten 3 zutabe soltatzen ari dira. Laster, burdina bistan geratuko da. 27. dorrea.	Eraikinaren kontua da, beraz, jabeen erkidegoari dagokio. Oharra: Aztertu ondoren, ikusi da arazoa erraz konpontzeko modukoa dela. Udalak konponketa bere gain hartuko balu, Zerbitzu Sailetatik egin liteke lana.
Udaltzaingoa	Auzotar batek dioenez, banatzaileek bere etxeko leihoaren gaineko arkupean aparkatzen dute.	Banatzaileei dagoeneko esan zaie jarrera hori ez dela egokia, horrela jarrai ez dezaten. Berriz gertatuz gero, Udaltzaingora deitzea gomendatzen da, dagokion zigorra jartzeko banatzaileari.
Obrak	Businduitarren kaleko bizilagun batek auzoko proiektuaren gaineko informazioa eskatzen du. Bilera bat eskatzen du.	2024ko urtarrilean informazio-bilera bat egin zen, berrurbanizazio-proietua aurkezteko. Obren lehen fasea dagoeneko martxan dago.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio jendeak eskailera mekanikoak geratu egiten dituela, bertatik jaitsi ahal izateko. Horrez gain, esaten du plaza txikiko zorua altxatzen ari dela. Tiburtzio Anituarantz doan kurban hesi bat jartzea proposatzen da, jendeak han aparkatzen duelako.	Mantentze-lanez arduratzen den enpresak egiaztatu du askotan eskailerak geldirik egoten direla, baten batek gelditzen dituelako bertatik jaisteko. Jarraipena egin zen Udaltzaingoarekin batera, eta hainbat pertsona harrapatu ziren. HAUR_PARKEKO ZORUA: haur parkeko kautxuzko zoruari dagokionez, haur jolasen mantentze-lanez arduratzen den enpresari eman zitzaion kexaren berri. 2023ko abenduko txostenean enpresatik jakinarazi zen Tiburtzio Anitua 4ko parkeko zoruko pitzadurak konponduta zeudela, baita Tiburtzio Anitua 18ko parkean altxatuta zegoen kautxua ere.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatzen du Azkena tabernaren inguruan lehentasuna ematea oinezkoei, ez ibilgailuei.	Proposamena aztertzen ari dira. Hala ere, tabernaren aurrean pasealeku bat dago dorreen amaieraraino iristen dena.
Obrak	Ziriako Agirreko bizilagun batek dioenez, 3. eta 5. zenbakien arteko eskailerak behera etortzen ari dira. Pertsona beraren iritziz, inguruan ez dago mugikortasun-arazoak dituztenentzako maldarik.	Idatzizko proiektu bat dago. Aipatutako lanak dagoen aurrekontuaren arabera egingo dira.
Zerbitzuak	Wenceslao Orbea 13 eta 15ean umeentzako parke bat egin zen. Hezetasuna dago eta zikin dago. Proposatzen du parkea berriz jartzea eta zementoz ainguratzea.	Haur-parke hau erretiratu egin zen, eta ez da berriz jarriko garajeetan ura sartzea saihesteko. Hala ere, Mankomunitateak hidrogarbitzailea pasatu zuen parkean, abenduaren erdialdean, txukun uzteko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun batek dio Ziriako Agirre eta Artegietan kaleen arteko pegozetarako irisgarritasuna nahiko txarra dela, eta aparte gelditzen direla.	Idatzizko proiektu bat dago. Aipatutako lanak dagoen aurrekontuaren arabera egingo dira.
Obrak	Bizilagun batek galdetzen du ea noiz konponduko den Bustinduitarren kalea.	2024ko urtarrilean informazio-bilera bat egin zen, berrurbanizazio-proietua aurkezteko. Obren lehen fasea dagoeneko martxan dago.